



*Am*



## SPÁNVERJAVÍGIN, ESPANIARREN HILKETA

Nire lana baleazale euskaldunei eta Islandian zeuden euskaldunak hiltzeko legeari buruzko marrazki bat da, hainbat teknika ezberdin erabiltzen. Jende gehienak ez daki asko edo, zuzenean, ez daki ezer lege honi buruz, eta erabat interesgarria iruditu zait honen inguruan gehiago ikastea eta irudi batean isladatzea. Baina marrazkia ulertzeko lehenengo historia jakin behar da:

670. urtera arte atzera egiten dugu, lehenengo baleazale euskaldunei buruzko lehen datuak dauzkagu bertan eta. Gure istorioa 1615ean gertatzen da, ordea. Urte asko dira horiek euskaldunentzat balea-arrantza hobetzeko, ezta? Konkretuki 945 urte, agian gehiago. Islandiarrek, aldiz, XVII. mendean oraindik ez zekiten baleak harrapatzen eta bakarrik bere hondartzetan eta kostaldean geratzen zirenak hiltzen zituzten. Datu gisa, islandiarrean badago esaera bat (*hvelreki*) zorte ona emateko erabiltzen dena eta literalki “ea bale oso bat zure hondartzan hondartzen den” esan nahi duena. Baina beno, islandiarretara eta baleetara bueltatuko gara. Gero, haien haragia jaten zuten eta hezurrekin etxeak egiten zituzten. Ez zuten baleen koipea olioan bihurtzen ezta honekin negozioak egiten, euskaldunak bezala. Negozio hauek Svalbard uharteetatik Terranovararte irekitzen ziren, Islandiatik pasatzen. Islandiarrekin negozioak egiten egon ziren 100 urte baino gehiago, eta honela sortu zen euskera-islandiarrera hizkuntza, hitz euskaldunak, islandiarrak, frantsesak eta ingelesak erabiltzen dituen. Badaude hizkuntza honetako bi glosario guztira 745 hitzekin, Reikiaviken dagoen institutu batean. Negozio hauekin Danimarkako erregea haserretzea lortu zuten, ordutik ere Islandiako soberanoa. Zergatik? Euskaldunek baleak islandiar uretan harrapatzeko ordaintzen zuten, gero islandiar portuetan gelditzen ziren baleen koipea urtzen eta baleak laurdentzen, eta hori egiteko ere ordaintzen zuten. Honetaz aparte, islandiarrekin salerosketak egiten zituzten. Baina diru guzti hau islandiar nagusiei ematen zieten, eta erregeari ez zitzaion ezer ailegutzen. Errege daniarra zapuztu egin zen.

1915ean Islandia denboraldi txarra pasatzen ari zen, gosetea zegoen, azken neguak oso txarrak izan ziren eta zenbait pirata eraso izan zituzten. Urte honetan izan zen hasieran esan dudan legea sortu zenean. “Euskaldunak eraso eta hil ahal dituzue, eta haien